

## HEDABIDEAK ETA EUSKAL HERRIA

NOR Ikerketa-Taldea  
Bilbo, Udako Euskal Unibertsitatea, 2000

Josu Amezaga irakasleak sarreran dioen moduan, liburu honen helburua Euskal Herritik euskal nazio-nortasunari eusteko eta estatu espainiar eta frantsesetik berriz desegiteko ahaleginetan hedabideek izan dezaketen garrantzia erakustea da.

Hedabideen papera edo eragina aztertu aurretik nazio-nortasuna nola eraikitzen den azaltzen du Amezagak, batera agertzen diren bi prozesu azaltzen dituela, «nortasun etnikoaren birsortze/deuseztatze-prozesua bata, eta nazio politikoan oinarritutako nortasunen eraikuntza/deseraikuntza-prozesua, bestea» hain zuzen ere.

Hori dela eta, eta euskal nazio-nortasunaren definizio eta garapenaren aspektu ezberdinak ukitzen dituela kontuan hartuz, «Euskal Herriko hedabideek eremu publikoaren eraikuntzan nola jokatzeko duten aztertzea, batetik, eta hedatzen dituzten kultura eta gizarteko erreferentziak nolakoak diren begiratzea, bestetik» dira liburuaren helburu nagusiak.

Horretarako, idazle ezberdinek errealitate poliedriko honen aspektu ezberdinak aztertu dituzte atalez atal. Lehenengoan Edorta Aranak Hego Euskal Herriko audientzien azterketa deskribatzailea eskaintzen du, egunkari, telebista eta irratiaren hedapen-indizeak adieraziz. Telebistari dagokionez, Euskal Herritik kanpo egindako produktuen kontsumo handia agerian uzten du ikerketak besteak beste.

Pascual Ricaud-ek bigarren atalean Ipar Euskal Herriko hedabideen egoera ezagutzera ematen du, prentsa eta irratiaren arloan hain zuzen ere. Zentzu honetan euskal irratiek zonaldean duten indarra azpimarratzen du idazleak.

Hirugarren atalean, idazleek dioten moduan, Patxi Azpillaga eta Juan Carlos Miguel de Bustos-ek «gaur egun Euskal Herriko komunikazio-sistema araupetzen duen instituzio eta legeen multzoa eta bertan eragiten duten enpresen egitura» aztertzen dute euskal hedabideen inguruko azalpen orokorra itxiz.

Laugarren eta bosgarren ataletan Euskal Herria hedabide horietan nola irudikatzen den azaltzen dute egileek. Amezagak eta Aranak Euskal Herrian saltzen den prentsa idatzian eta bertako telebistan —ETBn— islatzen diren erreferentzia-eremuak aztertzen dituzte, hauek euskal nazio-nortasuna eragiten baitute: Euskal Herria osotasunean, Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroa eta Ipar Euskal Herria. Hain zuzen ere, prentsari dagokionez, egunkarien eremu nagusia nazionala, autonomikoa edo herrialdekoa den agerian uzten dute, eta euskal nazioaren zati-keta juridiko-administratiboa nola islatzen duten ere bai. Honez gain, erabilitako hizkuntzak eremua osatzeko duen eragina azaltzen dute idazleek. Prentsaren azterketa amaitzeko gai edo atalen arabera Euskal Herria nola agertzen den —erreferentzia-eremu

moduan ala desitxuratuta— deskribatzen dute.

ETBren inguruan euskarazko eta gaztelerazko kateen arteko ezberdintasunak agerian uzten dituzte bi irakasleek, programazio-parrillaren azterketa egin ondoren lehenengoaren ekoizpen propioaren portzentajeak handiagoak direla ondorioztatzen dutelarik.

Ondoren, albistegietan islatzen den erreferentzia-eremuari dagokionez, «ETBko eguneroko albiste orokorrak egitean, herrialde kontinentalak ez dira ia kontuan hartzen; Euskal Herria, neurri handi batean, Hegoaldera mugatuta geratzen dela» agerian uzten du irakasle hauen azterketak. Zentzu honetan salbuespen bakarra, egunkarrietan bezala, eguraldi eta trafikoari buruzko informazioak dira, zeinetan Euskal Herria da eremu nagusia ETBn, ikerturiko egunkarrietan bezala. Ekonomia-arloan, berriz, Euskal Herria ez da osotasunean agertzen eta EAE da erreferentzia-eremu nagusia; Nafarroaren presentzia urria da bai honetan eta bai kirol-arloan ere. Amaitzeko eta bi idazleek adierazten dutenez «euskararen inguruko albisteak berriro ere agertzen dira Euskal Herriaren osotasunaren euskarri gisa».

Eguraldi mapak aztertu ditu Josi Basterretxeak Euskal Herrian kontsumitzen diren egunkari eta telebistek euskal lurraldetasuna nola islatzen duten ikertzeko orduan. Egileak dioenez «mapak ez du existitzen dena bakarrik irudikatzen; lurralde propioaren pertzeptzio sakonaren etorkizuneko proiektzioa ere irudikatzen du, eta ezagutza politiko inplizitua erreibindikatzeko du». Zentzu honetan, egunkari probintzietan herrialde edo lurralde historikoa —Hego Euskal Herrian— eremu nagusia den neurrian, *Deia*,

*Gara*, *Egunkaria* eta *El Mundo* kazetetan Euskal Herria agertzen da, azkenengo honetan Ipar Euskal Herriko eguraldiaren berri ematen ez duten arren eta bai, ordea, estatuarena, estatuko mapa batean zeinetan euskal iparraldea agertzen ez den. Telebistei dagokionez, ez da ustekaberik izaten eta ETBn soilik agertzen da Euskal Herria eremu nagusi moduan, besteetan zatikatu egiten baita; espainiar telebistetan Ipar Euskal Herria agertzen ez den bezala, frantziarretan Hegoaldea ez agertzeaz gain, Ipar Euskal Herria ere ez da aurkezten lurralde-eremu gisa. Beraz, Euskal Herriaren mapa ia ez da agertzen, ikonografian aztertutako komunikabide gehienetan egiten den irakurketa politiko itxia agerian geratzen delarik.

Amaitzeko, Euskal Herrian saltzen diren egunkarrietan —*Egunkaria* euskal kazetan izan ezik— euskara gutxitan erabiltzen dela ondorioztatzen du 6. atalean Basterretxeak berak egindako ikerketak. Irakasle honek agerian uzten duenez, *Gara*-n euskarari tratamendu hobea eskaintzen zaio, baina besteetan honen presentzia anekdotikoa da edo ez da agertzen.

Beraz, eta liburuan zehar egileek agerian uzten dutenez, Euskal Herria osotasunean hartzen duen erreferentzia-eremua ia ez dago euskal hedabideetan eta agertzea edo ez agertzea da komunikabideek egiten duten hautaketa politikoaren isla. Zentzu honetan beharbada ondorioek ez dute irakurlea ustekabean hartzen, baina ikerketa honek intuizioaz ezagutzen duen errealitate baten egiaztapen zientifikoa eskaintzen dio. Hau liteke, dudarik gabe, liburu honen eskaintzarik interesgarriena, zenbakitan eta kopurutan neurtuta, argudio hauek gaitzesten dituztenen aurrean ikerketaren bidez lortutako datuek euskal

lurraldetasunaren bazterketa eta es-tatu-erreferentziaren eragina agerian uzten baitituzte. Hau dela eta, liburua-ren irakurketa egoera horri aurre egiteko abiapuntua izan daiteke edo

normaltzat hartzen dugun egoera ba-ten egiaztapen soila. Irakurleak aukera beza.

*Arantza Gutierrez Paz*